

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Heroinak odolean



Amaia Alvarez Uria



12etan bermuta

JASONE OSORO

Elkar, 2015

Pertsonaiak egituratzen dute liburu hau, atalak *ama, aita, amama, senarra, alaba, maitalea, anaia* eta *ni* baitira. Protagonistak, Bertak, euretariko bakoitzarekin bizitakoak aletzen ditu elkarrizketa, oroitzapen, gogoeta eta ametsen bidez. Bizitza pusketak konpartitzen ditu familia, adiskidetasuna, amatasuna, gizon-emakumeak, maitasuna, sexua edo bizitzari buruz hitz egiteko.

Idazle honen *Greta* nobelak pelikula baterako gidoia iradokitzen bazuen, *12etan bermuta* antzezlan baterako gidoia du barrenean. Foku batek emakume bat argizatzen du eta bere bakarriketa entzungo dugu, tarteka oroitzapenen irudiak edo pertsonaiak berarekin gurutzatzen direla agertoki biluzian.

Bertak "jarraitu beharreko bidea" egin du eta bere bizitzaren erdira heldu da, mito erorien garaira. Bere ingurukoek ispilu izango ditu bere ibilbidea islatzeko. Belaunaldi baten memoria dugu, genealogia batean kokatuta. "Ez dut oraino aurkitu nire barruan amatasunak emakume oso bihurtuko ninduen azken zati hori".

Amamak emakume bezala egokitu zaion rola jokatu du alargundu arte, eta orduan heldu zaio askatasuna eta subjektu izateko unea. "Lanera, bazkaltzera eta txikiteora. Eta astean birritan edo, izterrak irekitzen zizkidan eta zakila sartzen. Horrelakoxea zen zure aitxitxa. Gizon gehienak bezalakoa".

Amak, ordea, bere rola ezarritako bi funtzioak betetzen ahalegintzen pasatu du bizitza, ama eta erakargarri eta ederra den emakumea, *Edurnezuriren* amaorde bihurtuz. Liburu honetan ama eta alaben arteko maitasun-gorrotto harremanak gordin

agertuko zaizkigu. "Zer da, bada, maitasuna, norbaitek asmatutako tranpa bat baino? Familia zoriontsuak gatibu mantentzen dituen amarrua? Desioaren zentsura?".

Bere gaztetako laguna ere ahalik eta ondoen bizirauteko artean huts egindako beste emakume bat da. Hala ere, miretsi egin du eta eredu izan du une askotan bere helduleku izan dena. "Ohe kontuetarako nahiago izan ditut beti barrabilak, baina bizitzarako askoz indar gehiago ematen dute bularrek, aluak".

Bere alabari irakatsi nahi dio bizitza mezezi duela, zoriontasuna bilatu behar duela. Oztupoak gaintuz segi eta aurrekoek egindakoak gogoan hartu. "Ona da negar egitea. Begira bestela niri. Badakizu emakumea izatea dela mundu honetako desgaziarik handiena".

Beraz, emakume izaten saiatu izan direnei omenaldi bat da lan hau, baita rol femeninoa auzitan jartze bat, memoriaren bitarteko kontzientzia hartzea. "Heroina odolean. Inongo literaturatan agertzen ez den heroina. Heroinak. Amak. Amamak. Alabak. Lagunak". ■



Jasone Osoro
Igartua
elgoibartarraren
hirugarren
eleberria da hau.